

1. JARDUERA

Bi aste hauetan landareen heziketaren inguruan arituko gara. Horretarako, lehenengo ariketa izanen da gelakide guztiak korro batean jarri eta landareei buruz dakiten informazioa zein den ikustea. Horretarako irakasleak galdera batzuk prestatu izanen ditu nahiz eta gelan zer nolako jakintzak dituzten ikusi beste hainbat galdera egin daitezkeen espontaneoki.

Irakasleak prestatu izanen dituen galderak hauek izanen dira:

- Zer dakizue landareei buruz?
- Nola hazten dira landareak?
- Zertaz elikatzen dira?
- Ba al dakizue zer de fotosintesia?
- Landare guztiek loreak ateratzen al dituzte?
- Zergatik behar dute ura eta eguzkia?